

A T X U M A R R I K O A K

Gaur jaso dut jaso nezakeen gutunik onena, Mariak azkenean erabaki du Aratz-Erreka utzi eta hona etortzea. Zain egongo natzaio, hemen daramatzadan hamar urteetan zain egon natzaion bezala. Eta erabakia hartu dut, unea iristen denean eta ez lehenago erantzungo diet nire hutsegiteei besteek bereei erantzun beharko dieten bezala, eta bitartean ez dut horretan gehiago pentsatuko. Erabaki horrek eta Mariaren etorrerak eraman nau gertatutako guztia idaztera, testigantza uzte aldera. Etebiko haitzuloan gertatutakoa, han eta Don Joseren aitorlekuan geratu zen, eta hemendik aurrera, orri hauetan egoteak ere eder iritzi diot. Egunen batean aditzera eman nahi izanez gero, orri hauek berreskuratu besterik ez dugu izango, eta bitartean, biziguraz bizitzea beste lanik ez. Gero gerokoak.

-I-

1929ko uda sargori hartan, Atxumarriko teilatupean, Santio ugazaba, Maria etxeakoandrea, eta hirurok bizi ginen. Senar-emazteek bost bat urte zeramatzaten ezkondata ni hara morroi iritsi nintzenerako hamasei urterekin. Atxumarriko ugazaba oso berandu ezkondu zuten, berrogei bat urteren bueltan, Mariak, berriz, artean hogeitara iritsi gabe, herrian geratzen zen ezkongabe bakarrarekin ezkondu zen etxetik aterako bazen. Ganorazko emakumea, tentea, eta serioa. Nagusia, aitzitik, alferkeriari eder iritzita, arranditsua, oso izaera bortitzekoa, eta besteengan akatsak bilatzeko dohain apartaren jabe. Lehen jipoia eman zigunetik, ez zuen gehiago atzera egiterik izan. Mariak eta

biok haren kolpeak erruz jaso genituen. Santio ez zen damutzen gehiegikeriaz, aitzitik, sinetsita baitzegoen gai hutsalengatik izaten zituen haserreak beste gauza larriago batzuk gertatzea eragozteko gai zirela, eta horrek sumindurari balio osoa ematen ziola.

Gauetan ezin izaten nuen lorik egin amaren aurpegia, eskuak, irribarrea, ahotsa, ahaztuko zitzaizkidan beldurrez. Eta amesgaizto bat balitz bezala, amarekin igarotako azken eguna gogoratzen nuen Atxumarrin eman nituen gau guzti-guztietan. Hamazazpi urtebetetzearen gau bezperan bezala.

“Euria gogotik ari du, barra-barra, Errasti argitsua eta garbia dago, ama eta biok mantentzeko gai ginen bezain argitsu eta garbia. Ama, hainbeste sufritzen ikusteak barrutik txikitzen nau. Inazio! Inazio! deitzen dit, gaixoak hitz egiteko ahalegin izugarria eginez. Etxekoneko Fermina jakinaren gainean jarri dut. Aita hil zitzaidanetik, amak ondo irakatsi dit laguntza eskatzen, eta badakit zer egin behar dudan. Amaren ondoan etzanik, oheari epel eusten diot. Izututa nago, amaren aurpegia kolore horikoa da. Amak esan dit ez dela ezer gertatuko eta lasai egoteko dena konponduko dela, baina beldurtuta nago, akordatu naiz aitarena gertatu zenean ere gauza bera esan zidala. Batean, etxekoneko Ferminaren garrasiak izutzen naute. Klara! Klara! Don Jose apaiza iritsi da! Ferminak apaizari ez baino medikuari deitu behar zion, lehen ere aitari ez zion ezertan lagundu, gizon honek beti dakar zorte txarra, etortzen den bakoitzean kandela piztu eta zerbait txarra gertatzen da. Sartu da apaiza gelan, erabakitasunez, bere etxean balego bezala. Isiltasuna ebaki daiteke labana kamuts batekin, amari begiak dir-dir egiten diote, begirada apaizarengan eta niregan hondoratzen du. Ama gauzak esaten hasi da, ahopetik, bere ordua iritsi zaiola, bizirik dagoenak heriotza zor duela eta horrelakoak, eta zer izango da nitaz, hamasei urte ez ditudala oraindik bete... Don Josek esan dio lasai egoteko, Atxumarrikoei duela egun batzuk entzun diela

esaten etxean morroi bat onartuko dutela, Atxumarriko Santiok lana besterik ez duela eta ondo etorriko zaiela laguntza. Amari Santio hitza entzun orduko aurpegia ilundu zaio, buruarekin ezetz dio, ezetz eta ezetz, ez zaiola gustatzen Santio Atxumarrikoa, halako mutila zettorrena erabat aldatu omen zen aurpegiko garatxo handi hura etengabe hazten eta hazten hasi zitzaionean eta ordutik ez omen du parte onik izan...”

Halako batean lo hartu izango nuen.

-II-

—Esnatu hadi! Zertan ari haiz? Lo al hago? Okerra!

Lo edo esna nengoen ez dut gogoan, baina garondoan jasotako eskukada ikaragarri hura gogoan dut, gogoan dudanez. Beharko ondo esnatu, izaturik Atxumarriko ugazaba ikusi nuen nire gainean, ero baten moduan garrasika.

—Madarikatu hori! Ez nian, bada, atzo esan arditara joateko eguna argitu baino lehen? Dagoeneko itzulita behar huen! Zorigaiztoko alferra! Bakarren bat zauriturik edo hilik badago, ikusiko duk bat eta bat zenbat diren! Esnatzeko esan diat! Ez hadi egon hontzarena egiten!— Oihu batean belarriak ondo berotzen zizkidan bitartean.

Abiatu ginen biok mendira. Ugazabak artalde osoa etxera ekarri nahi zuen, primalak izan ezik, eta ardiak jetzi andreak gazta egingo bazuen. Aspalditik berak ez zuen gaztarik egiten, zorria baino alferrago eginda zegoen, hori bai, artzain onaren itxurak ondo aski gordetzen zituen.

Gauaren itzalak zurbiltzen ari ziren unean gauak egunari lekua utzi nahian, bat-batean agindu zidan —Hi, joan hadi eskuinetik, eta Zarateko bihurgunean elkartuko gaituk!— ni baino makila

luzeago bat jaurtitzen zidan batera. Makila hartu eta nagusiak esandako lekura abiatu nintzen. Ardiak ikusi orduko, hainbestetan itzala eman zidan pagoan burua bermatuta zenbatzen hasi nintzen. “*Alproja hauek ez dituk inoiz geldirik egoten*“ pentsatu nuen. Eta denak kontatu baino lehenago urrundik zetorren baina oso ondo entzun nezakeen garrasi batek izutu ninduen.

—Inaziooooo! Etorri hadi hona! Azkar! Etebiko leizean erori nauk!

— Hara! “*Bazekiat zein leizetan erori haizen, bazekiat garrasia nondik datorren. Zarateko leptik zetorrek. Denok ezagutzen diagu ondo asko Etebiko leizea. Leize horretan bertan ikusi hindudan orain dela ez asko, hire artaldean aurkitu huen bizilagunaren ardi bat amildegira botatzen. Eroarena egin behar, a zer erremedio, bizilagunak hori jakingo balu, atzo ez hiokeen hainbeste irribarre egingo*”. Pentsatuz iritsi nintzen Etebiko leitze muturreraino.

— Hainbeste denbora behar izan al duk azaltzeko!— oihuka azaldu nintzen bezain pronto.

Nagusia amildegitik bi pausotara zegoen, bazter txiki batean, hildako pago baten sustrai zahar batek eusten ziola. Laguntzeko zerbaiten bila hasi nintzen, baina ugazabak agindu berri batekin eten zidan.

—Joan hadi azkar etxera eta laguntza eska ezak! Ezin nauk nire kabuz igo hanka hautsita zeukaat, eta hik ez duk indar zipitzik ere...

Harri eta zur begira geratu nintzaion, burura etorri zitzaidan zoragarria litzatekeela betiko han uztea.

—Zertan ari haiz, madarikatu hori! Ez hadi geratu begira, geldo hori, eta korri ezak laguntza eske!

Korrika hasi bezain laster, zerbait piztu zitzaidan barruan, ezin nuen korri egin eta pentsatu aldi berean. Bideko bihurgune batean gelditu eta eseri nintzen. Gehien kostatzen zitzaidana burura

zetozkidan ideiak uxatzea izan zen, amak inoiz onartuko ez lituzkeenak. *”Erori dena bera da, bestelakorik ez du merezi, bizirik dago, baina askoz hobe hilda balego. Horixe da merezi duena eta!* Minutu batzuk igaro nituen horrela, akaso minutu batzuk baino gehiago izango ziren. Lainoa nola desagertzen ari zen ikusiz, arnasa hartuko nuen birikak minberatu zitzaizkidan arte, egurrezkoak balira bezala sentitzen baintuen. *”Nahiago nuke amilduko balitz, horrela auzoaren ardiarekin elkartuko litzateke, berak amildegira jaurti zuen harekin. Ez du besterik merezi eta.”* pentsatuta, irribarre egin nuen nire barrurako. *”Eskerrak amak ez didan entzuten ”* Eta erabat geldo, etxerantz abiatu nitzen.

-III-

Bere izenez deitu nion lehen aldia izan zen hura —Etxekoandre! Etxekoandre! Maria! Nagusia Etebiko leizearen ertzean dago amiltzeko zorian, eta hanka bat hautsia du!— Sukaldean estropezuka sartuz. Ni zutik, kieto, begira-begira geratu nintzaion aginduen zain.

—Jainkoa lagun! Korri ezak, Inazio, etxekonekoei abisatu, mandoa eta sokak hartu, eta esan abiatzeko azkar Etebira. Azkar joan behar dutela esan, utz dezatela egiten ari diren guztia!

—Azkar Inazio— berriro ere Mariak —ez dago denborarik, ni aurreratu egingo nauk zuek etorri bitartean, Santio bakarrik egon ez dadin. Non dira nire abarkak?

—Inazio, mugitu hadi!— entzungo nuen azken agindua izango zen, sukaldeko leihotik urruntzen ikusten nuen bitartean.

Etxekonekoei abisua eman eta gero, ziztu bizian atera nintzen Mariaren atzetik. Ailegatu orduko hantxe ikusi nituen biak. Santio zurbil, minak jota, nik utzitako lekuan, kondenatua bezala, amiltzeko bi pauso baino behar ez zituela eta Maria bere ondoan, eskuak gora eta behera mugitzen zituela.

Oraindik galdetzen diot neure buruari zergatik ez nintzaien une horretan hurbildu, baina azaldu ezin dudan zerbaitek eragotzi zidan. Mariaren garaia zen hura, ez nirea; gainera ez zirudien Mariak inoren beharrik zuenik, ez nintzen haien tartean sartuko eta lekutik ez mugitzea erabaki nuen.

—Non dago madarikatu hori, soka batekin itzultzeko esan diot orain dela ia ordu bete! Eta zuk, aurkitzen duzun lehen zuhaitzari lotu soka eta hasi ni igotzen! Azkar!— Oihukatu zion Santiok emazteari.

Maria begira-begira geratu zitzaion, geldirik, harri bihurtuta. Norbaitek aizto bat sartu izan balio odol tanta bat ere ez zuen botako. Errebelazioa balitz bezala, inoiz ez bezala senarraren izaeraz jabetu zen. Konturatuko balitz une hartan bertan, gizonak ez zuela erremediorik. Bat-batean, Mariak barre egin zuen. Ezin menderatu eta ezin gelditu zitekeen barrea atera zitzaion barren barrenetik, barre adierazgarria eta askatzailea izan zen hura. Aurrean zuen, aurrean zuenez, hainbat urtez bere oinazeen sorburu izan zen gizona, herioan kulunkan, eta patuak behingoz, bere mende jarri zuen. Ezin nuen sinetsi ere egin ikusten ari nintzena, harri eta zur eginda nengoen neu ere, baina ezin nintzen mugitu ere egin.

—Nola ez zitzaizun bururatu orain arte hain ideia erraza?— esan zion senarrari.

—Zer diozu, andrea?— harridura aurpegiarekin.

Mariak hotz begiratu zion. Ikaragaitz. Ez zen bromarik antzematzen haren aurpegian, etsaiarengandik libratuko zela pentsatzeak ematen zion poza baizik.

—Leizeak irentsiko zaitu eta bakean bizi izango naiz! Hori esaten dizut.— Mariak erraiak hustuz.— Orain garbi ikusten dut. Orain dut aukera bizimodu txar honetatik libratzeko. Amildu egingo zara zorte pixka batekin, eta ni poztu egingo naiz. Gainera, leizeak eramango zaitu, ez nik.

Justizia leizeak egingo du, ez nik. — Esan zion Mariak, arnasa ia hartu ezinik, ikusi zuen lehen zuhaitzari gerria lotzen zuen bitartean.

Pauso seguruak emanez senarrari hurbildu zitzaion, soka jaurtitzen zion batera heldu ziezaion. Nik ezin nuen arnasarik hartu, nengoen tokitik ateratzeko keinua egin nuen baina atzera egin nuen berriro ere, gertatzen zena gertatzen zela, Mariari zegokion erabakitzea, ez niri. Beraz, ni lekuan kieto.

—Kondenatua! Zer ari zara esaten, bota soka eta igo nazazu gora!— Oihukatu zion Santiok. Beldurra aurpegian marrazten hasi zitzaion dagoeneko.

—Hortxe duzu soka, hartu eta isildu!

— Baina ez nauzu askatuko? Ezta?

—Ez zaitut engainatuko, nire indarrek erabaki dezatela. Zer esatea nahi duzu, gezurrarekin zure harrokeriarekin bezala gertatzen zait, ezin dut jasan. Ez al dituzu nire besoetako ubelduak ikusten? Ez al zara konturatzen zer egin duzun nirekin?

Santiok harriduraz eta mespretxuz begiratu zion, ezin zuen sinetsi entzuten ari zena. Sekula ez zuen pentsatuko bere emazteak horrela hitz egin ziezaiokeenik. Segundo batzuetan zehar, aukerak kalkulatu zituen, bazekien ezin izango ziola luzaroan bere buruari eutsi emazteak botatuko sokari heldu gabe, eta bazekien emaztearen indarrak, nahiko izan arren, oso baldintzatuak zeudela. Santiok ez zion begirik kentzen pitzaduraren hondoari. Komeni zitzaion emaztea konbentzitzea handik aurrera gauzak alda zitezkeela, hala ere, erreguzko hitz bakar bat ere ez zitzaion atera. Senarrak egoerak eta minak desitxuratuta zeukan aurpegia, ezin, ordea, emazteari barkamena eskatu.

Emazteak modu bitxian begiratu zion, aldartea asmatzeko gauza balitz bezala.— Ba al duzu ezer esatekorik?

Tankera hartu nion neuk ere zer bait esatera zihoala, laguntzera zetozen entzun genituen ahotsek eten ez balute. Jarraitu izan balu, agian dena aldatuko zen. Batek daki. Santiok laguntza gertu zegoela entzun zuen, ordea, eta adoretuta, gorde ezin zuen irribarre bat azaldu zitzaion aurpegian.

—Ez al diezu entzuten? Eta orain zer? Zer esango diezu? Laster aterako naute hemendik! Epelak eta bi ikusteko zaude oraindik! Zure gizona naiz, eta ikusiko dugu zer gertatzen den hemendik aurrera, ez zara nigandik hain erraz libratuko, zure bizitza inork ezagutu duen infernuri-kerrena izan dadin arduratuko naiz. Hitza ematen dizut.— hitzei eman ahal izan zien gorrotorik handienaz.

—Ikusten dudanez, momenturik ahulenean ere harro nazkagarri bat izaten jarraitzen duzu. Nire bizitza orain ere bada imajina daitekeen infernuri-kerrena!

Santiori, salbatuta zegoela sorturiko irribarreak, ez zion asko iraungo, ordea, bat-bateko luizi batek erabaki zuen bere orde. Bere emazteak eskaini zion sokari heltzea beste erremediorik ez zuen, betiko desagertu nahi ez bazuen leize zuloaren handitasunean.

—Tiraaaaaa! Indarrez!— emazteak eskaini zion soka hartu eta zintzilika geratu zen erabat andrearen mende.

—Une batez erregu bizia egingo zenidala pentsatu dut, baina hori ez duzu lan xamurra, ez horratio. Ez zaitut bizirik nahi! Ez badakizu ere, horren erruduna zu zara, zure kabuz erortzen ez bazara, neuk botako zaitut, kendu dizkidazu indar guztiak! Geratzen zaizkidan hondarrak niretzat behar ditut! Amildu zaitez behingoz!

Baina Santio amiltzekotan, andrea ere hutsera eramango zuen berarekin, ni atera ez banintz bizkor nire gordelekitik. Biak zintzilik geratu ziren, Mariak Santiori eusten ziola eta nik hari eusten niola nituen indar guztiekin, eta ez nituenekin. Mariak emeki-emeki senarra erortzen utzi zuen, hari

eusten zion sokarekin batera, niri begi nekatuez begiratzen zidan bitartean. Bi garrasi entzun ziren une luze batez, Santiorena eta Mariarena, bata bestearen gainean isiltasuna ahoskatu zen arte. Maria begira leizeak senarra nola irensten zuen eta ni indarrak huts ez egiteko ahaleaginean. Auzoak orduantxe azaldu ziren mandoa atzetik eta sokak eskuan zituztela —Berandu iritsi gara! Berandu iritsi gara!— Azkar! Maria ere amiltzeko zorian dago, atera dezagun hortik! Agudo!

Lehertzeko zorian nengoen txanda hartu zidatenean. Maria gora altxatu zuten bezain laster so egin zidan, han negoen ni, izerditan blai, arnasari buelta eman ezinik. Mutu. Gurutzatu ziren gure begiradak, besteek ikusi ez zuten begirada mingarria eta ulerkorra eskaini izan genion elkarri. Betiko desagertu zen Santio leizearen belztasunean, betiko desagertu zen bezala gure inozentzia.

—Jaungoikoa! Mariak ere eskapada latza egin du!— esan zioten auzoek elkarri igo zutenean —Gehiegi arriskatu da. Andre gaixoa, ez du gutxi egin emakumea izateko! A zer zoritxarra etorri den Atxumarrira!— Leize zuloari begira zeudela Santioren gorpua ikusi nahian edo. Ez zuten ezer ikusiko, laino apurra baino ez.

—

*1929ko uda bero hura uztea eta urte bereko uda beroago batekin hastea, dena bat izan zen. Ez dut inoiz jakin Argentinara neure oldez etorri nintzen edo zurrumurruek ekarri ninduten. Aratz-
Errekatik deabruak eraman izan banindu bezala etorri bainintzen Santio hil eta gutxira. Lur hauek ez dute amaierarik, hilabeteak ematen ditut inor ikusi gabe, buruan gordeta dudan amaren eta Mariaren irudia izan ezik, ez dut beste inorena zertan gogoraturik. Hala, leku ezohikoenetara eta aldi luzeenetara ni bidaltzen naute. Eta niri, bost.*

Aratz-Erreka lasai egon omen da azken hamar urteotan, eta ez omen da nabarmentzeko moduko gorabeherarik izan. Batzuek oraindik gogoratzen dute Santioren amaiera, baina herriari ospea emango liokeen zerbait bezala, hala dio Mariak ia gutun guztietan bedaio. Jendea zerbait gertatzeko gogoz dabilela dirudi Aratz-Errekan ere. Leku guztietako kontua. Maria justukoa agertzen omen da herrian, igandeetan elizan, merkatuan, eta inork ez diola nitaz ezer galdetzen, ez dira nonbait ausartzen. Maria laster hasi zen Argentinatik nire gutunak jasotzen, nahiz eta jakin gure herri horretan apaizak gutunak ireki eta irakurri egiten dituela, ez baitago ezer lehendabizi San Isidro elizako Don Jose apaizaren eskuetatik pasatzen ez denik. Jendeak gutaz zer jakin behar duen deabruak ere ez daki, ezta zergatik jakin behar duen ere, baina apaizak ireki ditun gutunengatik jakin dute dakitena. Ez dut inoiz jakin zuzen jokatu nuen. Badakit, Santiok bizirik jarraituz gero, damutu egingo nintzatekeela hiltzen utzi ez izanaz. Orain, hilda dagoela, hiltzen uzteagatik eta damurik ez izatearen kondenarekin bizi naiz. Baina erabakia hartu dut, unea iristen denean eta ez lehenago erantzungo diet nire hutsegiteei.

Gaur jaso dut jaso nezakeen gutunik onena...

Buenos Aires, 1939ko urtarrila.

